

"Ondo lan egiten jarraitu eta errepidean erakutsiko dugu toki bat merezi dugula Vueltan"

Mikel Bizkarra Etxegibel
Euskaltel-Euskadiko ziklista • 10



Herrikideek eta pilota munduak azken agurra eman diote Kepa Arroitauregiri

Iurreta • Joan zen eguenean, pilota munduak kolpe handia jaso zuen Kepa Arroitauregiren heriotzagaz. Pilotari ohiak zaletasuna ogibide bihurtu zuen. ANBOTOk kirol kolaboratzailea ere izan da urte askoan. • 4



"Aurrera egitea lortu badugu, osasungintzako profesionalei eskerrak izan da"

Igotz Aranbarri Osoro familia medikuak Arrasateko Osasun Zentroan eta Zornotzako Zelaieta Medikuzko Zentroan lan egiten du. Lehen Arreta zerbitzuak osasun krisi honetan eginga dako lana goraiatu du. • 2

Durangaldeko aisialdi elkarteek bertan behera utzi dituzte udalekuak

Durangaldea • Berbaro eta Kimuak elkarteek udalekurik ez antolatzea erabaki dute. Orain, udara begirako eskaintza alternatibo bat lantzen ari direla azaldu dute elkarte bietako ardura-dunek. • 7



DURANGALDEKO HELDUEN HEZKUNTZAKO IKASTETXEA
CEPA DURANGO HHI
Doako irakaskuntza ofiziala

Laubideta kalea, 6 DURANGO · Tel.: 946 814 253
www.epadurango.hezkuntza.net



IRAKASKUNTZA ARAUTUA

- Atzerritarrentzako gaztelania eta euskara ikastaroak.
- Hasierako irakaskuntzak.
- DBHko graduatua.
- Nazionalitate irakaskuntzak.

IRAKASKUNTZA EZ ARAUTUA

- Unibertsitaterako sarbide probak.
- Goi mailako zikloetarako sarbide probak.
- Informatika ikastaroak.
- Ingelesa, frantsesa (hasiera maila).



MATRIKULA ZAITEZ - 946 814 253
www.epadurango.hezkuntza.net

MATRIKULA-EPEA: Ekainaren 15etik, 26ra

Matrikula egiteko ordutegia:

Astehenetik ostegunera: 09:00-13:00/16:00-19:00
Ostiralean: 09:00-13:00

“Lehen Arreta zerbitzuan COVID-19 kasuen %80 kudeatu ditugu; gizartean ez da behar den beste ezagutzen egin dugun lana”

Arrasateko Osasun Zentroan eta Zornotzako Zelaieta Mediku Zentroan lan egiten duen Igotz Aranbarri osasun krisia zelan bizitzen ari diren kontatu du



Igotz Aranbarri Osoro
Familia medikua Arrasaten
eta Zornotzako Zelaieta
Mediku Zentroan

Durango | 1978

kudeatzen dituzten pertsonengandik, erizain, mediku, garbitzaile eta osasun zentroetan lankide diren guztien talde lanari esker lortu dugu aurrera egitea. Esaterako, Lehen Arreta zerbitzuan COVID-19 kasuen %80 kudeatu ditugu, telematikoki edo presentzialki. Lehen Arreta zerbitzua hasiera-hasieratik egon da horretan. Gizartean ez da behar den beste ezagutzen egin dugun lana. Deiak hartu ditugu eta jarraipena eman diegu larriak ez ziren kasuei. Egoeraren arabera, tratamendua jarri eta ondorengo jarraipen zorrotza egin zaie. Lan handia izan da eta ertz askokoa. Hobeto ulertzeko adibide bat ipintzearen, isolamenduan egon direnei familia medikuek eman dizkiete laneko baja agiriak. Idazkari lana egitea ere egokitu zaigu. Horrez gainera, ospitaletan ingesatuta egon diren ardura ere badugu Lehen Arretan, telefonoz zein presentzialki, pazienteak ezin bada etxetik mugitu ingesatu ondoren.

Pasatutakoa pasatuta, zer ikasgai ateratu behar genituzke etorkizunera begira?

Iruditzen zait gizartearen zati batek gogoeta egiteko baliatu dituela azken hile hauek, baina beste zati batek ez duela kontzientziario lan hori egin. Zelanbaiteko askatasuna eman diguten une honetan, berriro lehengo ohituretara bueltatu diren sentipena dut. Eguneroko jarrerara, portaera eta ekintzak garrantzitsuak dira. Kanean maskarak erabili behar dira eta asko maskararik barrik dabilta. Konturatu behar dugu gure portaerak besteengan eragina izan dezakeela.

Arlo pertsonalean, koronabirusak izan du eraginik zuzen?

Askok maite dugun senitarteko batek COVID-19a du eta isolamenduan sartu zutenean negarrez zegoela utzi behar izan genuen. Oso triste da eta benetan une gogorra izan zen guretzat. Horrelakorik bizi izan ez duenari urruneko zerbaitek irudituko zaio behar bada, baina ez da horrela, hor dago eta edonori gerta dakioke. Horregaitik da oso garrantzitsua babes neurri guztiak erabiltzea kanean gabiltzanean eta zentzuz jokatzeko.

DURANGO • JOSEBA DERTEANO

Igotz Aranbarri familia medikua da Arrasateko Osasun Zentroan eta Zornotzako Zelaieta Mediku Zentroan. Azken horretan, diabetesa edo patologia kardiobaskularren bat duten pazienteen kasuak eramatean ditu, besteak beste. Osasun krisian familia medikuek egindako lana azpimarratu gura izan du.

Gaur-gaurkoz, zein puntutaraino berreskuratu duzue normaltasuna zuen jardunean?

Oraingoz ez gara normaltasunera bueltatu. Asistentziarik gehienak telefonoz egiten dira oraindino, nahiz eta egoera normalean etxean artatzen diren pazienteen arreta edo oraingo osasun arazo baten eraginez etxetik irten ezin dutenena, etxean bertan egiten jarraitzen dugun. Telefonoz, pazienteak aurrez aurre artatzea behar duela baloratzen bada, orduan txanda ematen zaio. Oraindino badaude egon COVID-19 kasuak, eta, ahal den neurrian, garrantzitsua da kontaktua ekiditea edo babes neurri guztiekin egin ahal izatea behintzat, bai gure onerako, bai pazienteen onerako. Apurka ari gara lehengora bueltatzeko, nahiz eta seguruenik hemen-

dik aurrera arreta ez den lehen ezagutzen genuenaren modukoa izango; aldaketak egongo dira.

Zornotzan, gaixotasun kronikoa dutenen kasuak eramaten dituzu. Zelan eragin die osasun krisiak?

Etxetik jarraitu dute euren tratamenduekin, eta telefonoz mantendu dugu hartu-emanen, kontrol bat eramateko. Gaixotasun mota horiek lotura zuzena dute elikadura motagaz, ariketa fisikoagaz, egoera emozionalagaz... Ahalegin handia egin dute elikadura eta bestelakoak kontrolatzen, baina ulertu behar dugu ez dela egoera erraza izan eurentzat. Bai, sufritu dute pandemiaren eragina, nahiz eta COVID-19 gaixotasuna izan ez. Orain, apurka-apurka eurekin hartu-emanen berrartzen joango gara eta informazio zuzenagoa jasoko dugu euren benetako egoera baloratzeko. Ardura hori dugu eta zain gaude.

Sarritan psikologo lana egitea egokitu zaizue?

Lanetik kanpora, profesional askok gure telefonoak partekatu ditugu sare sozialetan. Niri jende askok deitu dit ezjakintasunetik, beldurragaitik, telefonoaren beste aldean zegoen horrek egoera bideratzen

lagunduko zion esperantzaz. Pandemiatik kanpora-eta sarritan egokitzen zaigu psikologo lana egitea. Jendeak azalpenak behar izaten ditu, berba gozo batzuk... Azken batean, pertsonak gara.

“**Sarritan gizarteak uste du ‘superman’ edo ‘superwoman’ garela, baina ez da horrela, pertsonak gara**”

Eta nork egin du psikologo lana zuekin?

Oso egoera gogorra izan dan denontzat. Sarritan entzun ditut 'beldurrez noa lanera', 'ezin dut lorik egin' eta antzerakoak. Kanpotik ikusten ez diren egoerak dira. Sarritan gizarteak uste du *superman* edo *superwoman* garela, baina ez da horrela, pertsonak gara eta sufritu egiten dugu. Esango nuke profesionalok ere pandemia sasoiak eragindako antsietatea, depresioa edo arlo horretako bestelako patologia jasango ditugula aurrerantzean. Lagungarria

izango litzateke guk ere psikologo profesionalen laguntza jasotzea, behintzat zerbitzu hori eskatzen dutenei begira. Landu beharko litzatekeen arloa dela deritzot. Azken batean, COVID-19a ez da joan, kasuak hor egoten jarraituko dute eta adi gaude. Lehen baino gehiago dakigu, baina estres puntu hori hor dago. Kasu gutxi egon arren, paziente batek kontatzen dizun edozein sintoma kasu bat izan daiteke. Beraz, beti babes hori mantendu behar dugu, bai fisikoa eta baita emozionala ere.

Hemen osasun krisiak eztanda egin aurretik, osasun arloko profesionalak sumatzen zenuten zer etorriko zen edo zein hedadura hartu zezakeen?

Bazetorren, bazetorren eta bat-batean eztanda egin zuen. Hasieran dena nahiko kaotikoa izan zen eta unean uneko egoeretara moldatzen joan behar izan genuen. Aurrera egitea lortu badugu, arloko profesionalen lanari eskerrak izan da. Osasun sistematik jarraitako baliabideak eta babes neurriak garrantzitsuak dira, baina egunerok lanean aritu diren pertsonak dute meriturik handiena, eta talde lana goraitzekoa da; hasi harreraren txandak

“Erantzunik bako galdera asko daude; urduritasuna eta egonezina nabarmenak dira ikastetxeetan”

Ikasturte amaiera aurrez aurre dutela, 15 urtetik gorako hainbat ikasle ikasgeletara bueltatu dira; dena dela, ikastetxerik gehienek ez dituzte ateak zabaldu



Ainara Fernandez Garcia
Berrizko DBH Institutuko
Ikasketa burua
Lemoa | 1981

BERRIZ • AITZIBER BASAURI

Astelehenean, DBHko laugarren mailako eta Batxillergoko eta Lanbide heziketako 2. mailako hainbat ikasle bueltatu ziren ikasgeletara Hego Euskal Herrian. Dena dela, itzulera ez da orokorra izan. Boluntarioa da aurrez aurreko eskoletara bueltatzea, eta Berrizko DBH Institutuan lez ikasle asko ez dira gelara itzuli.

Cristina Uriarte Hezkuntza sailburuak esan du "osasun baldintzak" betetzen direla ikasgeletara bueltatzeko. Horrela dela uste duzu?

Ez. Ez dago ikasgelak zabaltzeko kondiziorik. Sailburuak esan zuen moduan, arau orokor lez, ezin dira denak ikasgeletara bueltatu. Sarrera-irteerak eta atsedendaldiko orduak zaindu behar ditugu, eta distantziak mantendu. Hala ere, DBHko laugarren mailako ikasleek

hautazko ikasgai asko dituzte, bikoizketa asko egiten dituzte, horrek dakarren mugikortasunagaz. Gehenez 15eko taldeak egon behar dira. Bada, gure kasuan, 21 ikasle inguru izanik gelako, lerro bitik lura pasatu beharko genuke, gutxienez. Baina, gehituko da irakasle kopurua? Eta, horrela bada, zelan uztartuko da lan hori telelanagaz? Irakasle horiek beste mailetakoa ikasleak ere badituzte. Erantzunik

bako galdera asko daude; urduritasuna eta egonezina nabarmenak dira ikastetxeetan. Bestalde, irakasleak edo ikasleen senitartekoak arrisku taldeetan egon daitezke.

Hezkuntza Sailak, azkenean, konfinamendua arintzeko 2. fasera arte itxaron du, berme juridikoa arrazoituz.

Bai. Oso egun frenetikoak bizi izan ditugu. Gainera, Hezkuntza Sailak ikastetxeengan ipini zuen zorrotz bete beharreko osasun neurrien erantzukizuna ere. Joan zen astean, hidrokeleko 12 pote, 150-200 maskara eta termometro bat jaso genituen. Baina kontuan izanda DBHko 4. mailako 57 ikasle daudela, 20 bat irakasle horiekin lanean, zuzendaritza taldea, irakasle ez diren langileak... egun bian agortuko liriteke. Ez da desinfekzio lan orokorrik egin. Garbitzaileek eurek egoera ikusita, garbiketa sakonagoak egin dituzte.

Zelan ikusten duzu ikasleen buelta?

Durungaldeko ikastetxeak hartu-emanen egon gara eta denok antzera batean jokatzeko gabilta. Indartze klaseak planteatu dira; bestalde, batxillergoak duten ikastetxeetan ardura handiz bizi dute egoera, uztailean selektibitate dute eta. Baina ez da aurrekusi ikasgelak era orokortuan zabaltzea. Lanbide heziketan ausartagoak izan diren arren, ikasle batzuk ez dira bueltatu.

Pantailak ikasgela bihurtu dira hile bi hauetan. Zelan moldatzen zarete?

Ez da erraza, eguneroko hartu-emanera ohituta gaudelako. Urteak daramatzagu IKT formakuntzagaz, eta aurrez aurreko ordezkatzea oso zaila dela konturatu gara. Telela-

nak aurretiazko prestaketa lan handia eskatzen du eta egonezina sortu da. Denbora errekorrean murgildu gara honetan, eta zalantzak sortzen zaizkigu ikasleek dena ulertu ote duten. Bai ikasleek bai familiek aha-lerin bat egin dute, eta jarraipena, orokorrean, ona izan da.

Atzean gelditzeko arriskua handiago da egoera honetan.

Aniztasun handia dago ikasleengan, maila sozio-ekonomiko kulturala-

“**Asko berba egin da arrakala digitalaz, baina atzean arrakala sozio-ekonomikoa eta kulturala daude**”

gaitik edo beste arrazoi batzuegatik, eta mintegietan ikasgai bakoitzean egon litezkeen premiak eta kasuistikak aztertzen ari gara, ikasle guztiek ikasturtea ahalik eta egokien amaitzeko. Era mailakatuan egingo genuke, protokoloak zorrotz betez eta denon osasuna bermatuz. Asko berba egin da arrakala digitalaz, baina atzean arrakala sozio-ekonomikoa eta kulturala daude, pandemiak areagotu egin duena. Urteetako aldarria dira bestelako giza baliabideak, bestelako hezkuntza politikak. Ordenagailu batek ez du dena konpontzen. Atzean dagoenari errotik heldu behar zaio.

Ekainean ikasturte berria antolatzen hasteko erronka ere baduzue.

Bai. Horretarako, ezinbestekoa du gu ikasturtea zelan hasiko dugun argitzea, beste maila guztietan ere.

AURRE MATRIKULA

ekainak 1-19

LANBIDE HEZIKETA 2020-21

Aurematrikulatzeko moduak;

- 1- Presentziala; etorri zaitez!
- 2- Telefonoz 943 20 84 44
- 3- Web bidez; www.uni.eus

IKASTETXE PUBLIKO DOAKOIA *

Pilotaren munduak kirol honi egindako ekarpena goraipatuz agurtu du Kepa Arroitauregi

Joan zen astean hil zen, 48 urte gaz. Harrezkero, kirolari eta herrikide askok nabarmendu dute Arroitauregiaren lana

IURRETA • JOSEBA DERTEANO

Pilotaren munduak kolpe handia jaso du Kepa Arroitauregiaren heriotzagaz. Gazterik joan da, 48 urte gaz, baina pilotaren alde egindako lan nekaezinak luzaroan iraungo duen lorratza utzi du. Horren isla izan zen asteleheneko hileta elizkizuna, Iurretan. Pilotaren mundua hantxe batu zen, Arroitauregiri azkenengo agurra emateko. Pilotarietako pasilloa egin zuten euren erremintekin —palak, sareak, eskuko pilotak...— eta handik igaro ziren senitartekoak elizkizuna amaitu zenean. Iurretako plaza bete egin zen, Arroitauregi maite zuten herrikideekin. Bertsoak abestu zizkieten eta Iurretako dantzarietako saioa eskaini zuten.

Pasioa, ogibide

Pilotaria zela, urte bian profesional aritu zen Arroitauregi, eta gero bere pasioa ogibide bihurtu zuen. Esaterako, Durangaldeko

pilotari askok bere lanari zor diote trinketean duten maila. "Pilotarioi aholkuak eta animoak ematen ibili da beti, modu altruistan", gogoratu du Asier Aspuru pilotari abadiñarrak. Euskal Herriko Pilota Federakuntzan ere aritu zen, esku pilota sustatzen. "Oso pertsona positiboa izan da eta umeekin hartu-eman oso ona izan du", adierazi du Txaber Zabala Durangoko pilota eskolako arduradunak.

Munduko Pilota Batzarreko arduradun moduan, pilota mundura zabaltzeko ahalegin handia egin zuen. "Boliviako kirolari emandako laguntzagaitik betirako gaude esker oneko zugaz", adierazi du sare sozialetan Boliviako Pilota Federazioak.

Horrez gainera, kazetari aritu zen ERAZ aldizkarian, eta ANBOToko kolaboratzailea ere izan da. Herrigintzan egindako lana ere ezin daiteke ahaztu; Iurretako kofradietako juntakidea izan zen 24 urtez.



Kepa Arroitauregi —behean, eskumatik bigarrena— pilotari afizionatua izan zeneko irudia.

Gutuna

Aupa, Kepa

Juen ein hazela esan jjeustiek; Egijje dok hori?! Nik ondino ezin neikek sinistu, bueno ze kristo! Etxuat sinisterik gure!

Ondino geuzo asko eukin jjuauz eitteko... Ondino Maiztegiko patijjora, guraso elkarteko kontuetara (marroietara), buelta batzuk zor dozak!

- Ezton holan Malen?

- Bai ba! Aurten egoera aldrebes hau dala ta ez dogu krosik eingo Maiztegiko umiok, baina datorren urtien zer?

Aittek esan doste, Mari Teren errelebue hartu zendule mikrofonuaz eta hori ardura haundijje da gero! Orduen ez dozu barriri zeuk hartuko mikrofonue, Kepa? Benetan? Eta nok esango dauz gure ixen guztijjek konfundidu barik mikrofonotik? Aittek dinuen moduen, neuk be ezin neike sinistu.

-Ezta posible, ezta Arantza?

-Bai Malentxu, horixe dinot neuk be.

Urte askuen ibili haz hemendik ziher bueltaka; hori bai, zarata askorik atara barik, heure estiluen. Lehenengo Ikerregaz, gero Ibai-

gaz, eta ondinarren, Nilegaz be bai. Bata dala, bestie dala, beti laguntzeko prest. Bardin Kiroleko lanetan (heure esperientzijatik geuri erakusten), Maiztegiko jaiko txosnan biherrien, zein beste edozetan, beti borondate onez eta gauzak aurrera atarateko heure aletxue ipintten.

Bueno, Kepa, ikusi dok; danok botako haugu faltan, guraso elkartiek, irakasliek, umiek, patijjoko lagunek,...

Chavela Vargasek esaten jjuan, "Tómame esta botella conmigo y en el último trago nos vamos". Hik bixkorrei hartu dok azkenengo trague eta hain zuzen be horrexegaitk pentsetan jjuat, higaz akordetan garien bakotxien, zelan edo halan betiko moduen diskreto, baina agertuko duala heure burue eta hire zati bat hor geratuko dala betiko geugaz. Halan ba, oin arteko danagaittik eskerrak emotie toketan jjakuk.

Eskerrik asko, Kepa, eta bide ona eukin dagiala!

Maiztegi Herri Eskola.

Politika

Jesica Ruiz
PSE-EE



Gaur egungo datuak

Antza denez, osasun krisia amaitzen ari gara, baina orain krisi ekonomiko eta soziala datozkigu.

Oraingoz, bigarren fasean gaude eta atzerapausorik nahi ez badugu, denok izan behar dugu arduratsuak. Ezin ditugu onartu terrazetan eta parkeetan ikusitako irudiak, beldurra ematen dit hondartzak zabaltzen direnean gertatuko denak... Orain ezin gara erlaxatu. Hiru krisiak batera (osasun, ekonomiko eta soziala) izatea jasanezina izango litzateke.

Gaur egungo datuak ikusten baditugu krisien ondorioak nabaritzen dira; azken hiru hilabeteetako langabezia datuak hauexek dira: otsailean 1.439 lagun zeuden lan barik (%9,51), martxoan 1.538 lagun (%10,26) eta apirilean 1.737 lagun (%11,47). Zerbitzuak dira sektorerik kaltetuena, eta ez dugu ahaztu behar Durango zerbitzu herri bat dela. Kontuan izan behar dugu ERTEak oraingoz ekainaren 30era arte daudela, eta hori amaitzen denean datuak askoz ere kezagarriagoak izango direla.

Horri gehitu behar diogu Durangon krisia hasi zenetik JAED 50 familia gehiagori ari dela laguntzen. Eskerrak Durangon JAED daukagula erreferentzia moduan, ibilbide luzearekin (57 urte) beti besteei laguntzeko prest. Eurek orain inoiz baino gehiago gure laguntza behar dute.

Lan handia daukagu inor atzean ez geratzeko. Urte hau oso gogorra izango da, baina epe laburrera begiratu beharrean epe ertain eta luzera begiratu behar dugu. Bakarrik lortuko dugu elkarlanean lan egiten badugu.

anboto

Bixente Kapanaga, 9
48215 Iurreta - Bizkaia
Tel.: 946 816 558

Erredakzioa: 946 232 523
Publizitatea: 946 217 902
publi@anboto.org

2020ko maiatzaren 29a
18. urtea - 809. alea

Lege gordailua:
BI-2268/01
ISSN:
1578-7028
Tirada:
12.000 ale



Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du



EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundua

Osasun gida

anboto

Ginekologia
PSE: 93/18

mam ginekologia zentroa

Mikeldi 13, 48200 - DURANGO
T 946 05 53 04
info@mamginekologiadurango.com
www.mamginekologiadurango.com

HITZORDUA ESKATU
674 322 360

Fisioterapia
PSE: 119/13

Zainduz

**FISIOTERAPIA
OSTEOPATIA**

Ane Legorburu Munitxa

Trañabarren 13, 4. blokea
behea eskuma
MATIENA-ABADIÑO

944 657 132 - 686 906 374

Fisioterapia
PSE: 57/16

pablo zubizarreta
fisioterapia & osteopatia

Muruetatorre, 2D
DURANGO

pzubizarreta@gmail.com
946 550 049 - 695 784 963

Optometria
PSE: 162/13

Naia Zabala Azumendi
11587 kol. zk.

keinu

- Optimetrian teknika aintzindariak
- Kontaktologia • Haurren ikusmena
- Ikusmen terapia • Erreflexu primitiboak
- Syntonic fototerapia • SENA estimulazio neuroauditiboa • Orto-k

Arkaz 3 • 48240 Berriz • Tel.: 94 622 50 99
www.keinuoptometriazentroa.com

Podologia
PSE: 148/13

PAUSOZ PAUSO
Podologia klinika

Goiatz Murua
kol. zbk. 147
Ainhoa Elorza
kol. zbk. 238
Nerea Rodriguez
kol. zbk. 329

Kiropodia, onikopatia, alterazio dermatologikoak eta ibilerako alterazioak

Telefonoa: 946203630
Monago Torre 4, behea 48200 durango

Odontologia
PSE: 145/13

clínica dental hartzklinika
b. unamunzaga e. etxebarria

Dakizuenetz, betidanik izan gara adituak esterilizazioan. Orain, inoiz baino gehiago, den-dena prestatu dugu zuen segurtasunerako

{ Muruetatorre, 2C blokea, behea - 48200 Durango }

Tel.: 946 819 951 - Mug.: 717 194
454uecdental@gmail.com

Odontologia
PSE: 112/13

J.L. URRETA ZABALO
MEDIKU ESTOMATOLOGOA
IMQ, PADI (umeen hortz programa)
Ortodontzia

Zumalakarregi, 18 - 1. ezk.
48200 DURANGO
Tel.: 946 812 200

Estetika
PSE: 16/09

AGIRRE KLINIKA
MEDIKUNTZA ESTETIKOA

www.medicinaesteticadurango.com

Laser berria:
Tatuajeak behin betiko kentzeko laserra

Obesitatea-zelulitisa, Laserra: depilazioa (prezio bereziak), barizeak... Adinaren kontrako tratamenduak: orbanak, botoxa...

Txatxiena, 6
48200 - DURANGO
Tel.: 946 810 387

Psikologia
PSE: 62/11

JON ARRUABARRENA
PSIKOLOGO KLINIKOA
PORTAERA TERAPIAN MASTERDUNA

- Antsietatea, estresa, fobiak
- Depresioa • Eskola arazoak

UMEAK - NAGUSIAK - BIKOTEAK

Frantzisko Ibarra, 6 DURANGO
jon@psikologo.biz - www.psikologo.biz
Tel.: 946 033 246 - 629 245 728

Pedagogia
PSE: 63/63

UGATZ

UMEAREN GARAPENERAKO ZENTROA
Laguntza goiztiarra, psikomotrizitatea, fisioterapia, logopedia

Juan Olazarán, 1 behea
DURANGO
ugatz@hotmail.es
944 668 370 - 615 782 090



Profesionalik onenak zure zerbitzura!

Abadiñoako Udalak beste urtebetez luzatuko du Emtesport enpresagaz Astolako kiroldegia kudeatzeko duen kontratua

Martitzeneko osoko bilkuran, EAJk eta Abadiñoako Independententek luzapenaren alde egin zuten; EH Bilduk, osterera, kontra

ABADIÑO • EKAITZ HERRERA

Abadiñoako Udalak beste urtebetez luzatzea erabaki du Emtesportegaz zuen kontratua. Martitzeneko osoko bilkuran, EAJk eta Abadiñoako Independententek luzapenaren alde egin zuten. EH Bilduk, osterera, kontra. Mikel Garaizabal alkateak arrazoi nagusi bi eman zituen. Batetik, kiroldegian "zerbitzu publikoa ematen jarraitzeko" asmoa. Bestetik, indarrean dagoen akordioa "likidatzeko" beharrezkoa. Garaizabalek azaldu zuenez, 2015ean sinatu zen Emtesporten eta udalaren arteko azken kontratua, eta, haren arabera, hamar urterako akordioa hitz eman zioten elkarri. Lehenengo bost urteak pasatuta, akordioa urtero berrikusiko zutela adostu zuten.



Otsailaren 16an haizeak sabai zati bat bota zuenetik, Abadiñoako igerilekua itxita dago.

Bada, puntu horretan dago udala: bost urte igarota eta aurrerantzean kontratuak urtero berrikusteko moduan. Alkateak kontratua urtebetez

luzatzea defendatu du "gauzak beste era batera egiteko esperantzazagaz".

EH Bildu ez zen erabakiagaz bat etorri eta "oso larrizat" jo zuen

Astolako kiroldegiaaren egoera. "Kulebroi" bategaz alderatu zuen. Mikel Urrutia bozeramailearen esanetan, "okerrak" egon dira, bai

erabakia hartzeko "prozeduran", bai erabakiaren edukian. Kiroldegia arazo teknikoak dituela eta hurrengo hileetan zarratuta egongo dela jakitun, kontratua "berdin" mantenduko duela aurpe-

Abadiñoako EH Bilduk "gardentasunik barik" aritu izana leporatu dio gobernu taldeari

giratu zion udal gobernu taldeari. "Gardentasunik barik" eta "partehartzerik barik" aritu izana ere leporatu zion.

Luzapenak "zerbitzu baten jarraipena bermatzen" duela defendatu zuen Javier Crespo Independententek. Ildo beretik berba egin zuen Garaizabalek: "Ahalik eta zerbitzurik onena ematen jarraitu behar dugu; are eta gehiago egoera honetan". Alde horretatik, akordioa likidatzerakoan kontratu baldintzak birplanteatzeko aukera egon daitekeela gaineratu zuen.

Joan zen domekan jendetza batu zen Atxondon AHTrik ez dutela gura aldarrikatzeko

Abiadura Handiko Trenaren kontrako manifestaziora joan zirenek batez ere oraintsu botatako Maisuen etxea gogoan izan zuten; orain aste batzuk eraitsi zuten eraikina eta herriko hainbat taldek erabiltzen zuten

goseak galdu egiten zaituzte eta!", jarraitu zuten plataformako kideek.

'Orain ardura' manifestua

Hego Euskal Herriko hainbat eragilek sinatu duten 'Orain Ardura' manifestua ere aurkeztu zuten. Arabako, Bizkaiko, Gipuzkoako eta Nafarroako eragile ugari bat egin dute AHTaren aurrekontu eta inbertsioak garraio publikora edo politika sozialetara bideratzea eskatzeko. "COVID-19ak eragindako egoera latzari aurre egiten lagunduko dio. Elorrio, Atxondo eta Abadiño lotuko dituen zatian, esaterako, 165 miloiko inbertsioa dago eta dirutza hori beharrezan sozialetara bideratzea gura dugu", gaineratu zuten. Hori horrela, maiatzaren 26rako, 10:30erako, Bilboko udal-txe pareko plazara joateko deialdia egin zieten manifestaziora joandako herritarrei.

ATXONDO • A.M./M.Z

Beste behin ere, jendetza bildu da Atxondon Abiadura Handiko Trenaren proiektuaren aurka. Antolatzaileek ANBOTOrri jakinarazi diotenez, domekako manifestazioan 400 bat lagun batu ziren.

Manifestazioaren amaieran, oraintsu bota duten Maisuen etxea gogoratu zuten batez ere. Horrez gainera, EAJren politikekin kritiko

AHTrik Ez plataformako kideak EAJren politikekin kritiko agertu ziren domekako manifestazioan

agertu ziren: "Bizi dugun sasoia ere kontuan hartzekoa da. Osasuna jokoan dagoen honetan, komunikabideetan agertzen diren agintari horiei porlanez betetzen zaie ahoa, eta gezurra bata bestearen atzean esaten dute; herritarren dirua, gu guztion dirua, osasunera bideratzea exijitzen dugu".

Proiektuarekiko desadostasuna agertzeaz gainera, AHTrik Ez plataformako kideek "herriari entzuteko" eskatu zioten Atxondoko Udalari. "Herria bizirik gura dugu, kutsadurarik barik eta osasuntsu, landa eremuagaz eta elkarte biziekin. Atxondok ez du AHTrik gura, eta entzun herriari eta eman aurpegia ezkutatu barik, zuen diru



Antolatzaileek ANBOTOrri jakinarazi diotenez, 400 bat lagun batu ziren manifestazioan.

hitz artekalea 23, durango
946 810 776
info@hitzliburudenda.com

Salmenta telematikoa
Eskatutako edozein liburu edo disko ekartzen ahaleginduko gara, eta zuon etxetara bidaliko dugu.

Eskaera hiru eratarata egin dezakezu:
e-postaz: info@hitzliburudenda.com
WhatsApp-az: 686 214 964
Telefonoz: 94 681 0776
(8:00-tik 14:00-tara)

Ordainketa bi eratarata egin dezakezu:
Banku-transferentzia bidez.
BIZUM bidez.

Bidalketa gastuak 4,90 € izango dira, hala ere tarifa honek fardelaren tamainaren eta pisuaren arabera aldaketa izan dezake

Arriko Liburudenda
Kalebarria z/g - Durango
Tel.: 946 201 893
Faxa: 946 816 403

A. Urteaga podólogo
R.P.S. 214/06

Ainara Urreta Jainaga
OINETAKO PATOLOGIAK
NEURRIRA EGINDAKO PLANTILLAK
OINETAKO BESTE HAINBAT GAITZ

Herriko gudarien kalea, 10 behea - DURANGO
Tel./Faxa: 946 215 404

Durangaldeko aisialdi elkarteek bertan behera utzi behar izan dituzte udalekuak, egoerak hala behartuta

Berbaro eta Kimuak elkarteek alde batera utzi dituzte aurreikusita zituzten udalekuak. Baina, etsipenean jausi barik, eskaintza alternatibo bat prestatzeko lanetan dabiltza

UDALEKUAK • EKAITZ HERRERA

Koronabirusak kolpatutako lan sektoreen zerrendari beste izen bat gehitu behar zaio aurrerantzean: aisialdi taldeena. Egoerak hala behartuta, aurreikusita zeuden hainbat udaleku bertan behera gelditzen ari dira. Durangoko Berbaro elkarteak bere egitasmo propio guztiak alde batera uztea erabaki du azken egun hauetan. "Bost udaleku egitekoak ginen Durangon (Udan Olgetan), eta egonaldi bi Uitzin eta Lizarran (Nafarroa). Hurrez gainera, udaleku ibiltari bi ere

egitea aurreikusita zuten: egonaldi finko bat Sarrian (Araba), udaleku finko-ibiltari bat Sarriatik hasi eta Arrasateraino eta udaleku ibiltari bat Sarriatik Iurretara. "Txikieneen taldean 20 bat ume geratuko dira udalekurik barik. 40 inguru adin ertaineko taldean, eta beste 30 bat nagusien taldean", azaldu du Arresek. Kimuak taldeak aurreratu du uztaileko alternatiba bat bilatzen ari dela, neska-mutikoei gutxieneko eskaintza bat eman ahal izateko. Mendi ibilaldi bat antolatzea dute buruan.

"Alde batera utzi ditugu Durangoko bost udaleku, Nafarroako egonaldi bi eta udaleku ibiltari bi"

bertan behera utzi behar izan ditugu", azaldu du Markel Sanchezek, Berbaro elkartearen kudeatzaileak.

Hala ere, egoera txarrari onena ateratzeko bidea hasi du Berbarok. Elkarteak argi du umeen aisialdi-gaz eta euskaragaz duen konpromisoagaz segituko dutela uda honetan ere. Dagoeneko hasita daude udalekuek eskaintza alternatibo bat prestatzen. "Ez dira amesten ditugun moduko udalekuak izango, baina gure esku dagoen dena egingo dugu, osasun egoerak ahalbidetzen dituen parametroen barruan, ahalik eta eskaintzarik hezitzaileena eta dibertigarriena eskaintzeko", azaldu du Sanchezek. Laster emango dituzte prestatzen ari diren egitasmoen xehetasunak.

Kimuak

Iurretako Kimuak aisialdi taldearen egoera ere berdintsua da. Aurreikusitako udalekuak bertan behera utzi dituzte haiek ere. "Ikusten genuen osasun agintariak udalekuak egin ahal izateko markaturiko protokoloak ez zirela eramangarriak umeekin. Umeek ezingo zuten berdin disfrutatu. Beraz, dena alde batera uztea erabaki dugu", azaldu du Nahia Arrese Kimuak taldeko kideak. Hiru udaleku

Katalamixon

Ziortza Gallastegi abadiñarrak ere ondotoxi daki zer-nolako egoera bizi duten. Abadiñoko Katalamixon aisialdi taldean aritzen da hezitzaile lanetan, eta Iluntze dantza taldean ere sartuta dabil irakasle. "Aisialdi eskaintza modu birtualean egin dugu egun hauetan, baina umeentzat ez da hain bide erakargarria", esan du. Dantza taldeari buruz ere berba egin du: "Dantza klase guztiak bertan behera utzi genituen osasun krisia hasi zenean, eta horrela segitzen dugu. Datorren ikasturtean itzuliko ote garen aztertuko dugu, betiere, osasun egoerak ahalbidetzen badu".

Kimuak taldea mendi ibilaldi bat antolatzea aztertzen ari da udalekuen alternatiba lez

Udalen etenaldiak

Durangaldeko udal askok ere ezinbestean eten behar izan dituzte kontratatuta zituzten aisialdi zerbitzuak. Zornotzan, Abadiñon eta Iurretan, esate baterako, bertan behera gelditu dira aurreikusita zeuden aisialdi planak. EUDELeK, Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako udalen elkarteak, udalekuak ez antolatzea iradoki zuen maiatzaren erdialdean. Bestalde, pilota eskolek ere alde batera utzi zituzten euren udalekuak orain egun batzuk.



Berbaro elkarteak iaz Uitzin (Nafarroa) egindako egonaldiko une bat.

ZORNOTZA
CENTRO INTEGRADO DE FORMACIÓN PROFESIONAL
LANBIDE HEZIKETAKO IKASTETXE INTEGRATUA

DATAK

Aurrematrikula ekainak 1etik 19ra	Matrikula uztailak 13tik 17ra
-----------------------------------	-------------------------------

ESKAINTZA OSOA

GOI-MAILAKO ZIKLOAK

- Metal-Eraikuntzak
- Web Aplikazioen Garapena
- Mekatronika Industrial

ERDI-MAILAKO ZIKLOAK

- Merkataritza Jarduerak
- Erizaintzako Zaintza Osagarriak
- Mantentze-lan Elektromekanikoa
- Soldadura eta Galdaragintza
- Mikroinformatika-sistemak eta Sareak

ESKAINTZA PARTZIALA

- Erizaintzako Zaintza Osagarriak

ENPLEGURAKO PRESTAKUNTZA

- Langile/langabetuentzat ikastaroak

946 730 251 | info@fpzornotza.com | www.fpzornotza.com | @fpzornotza

AENOR, Kudeaketa Kalitateko, ICNet, Fp EUSKADI LANBIDE HEZIKETA, EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

Kezken gaineratik, jatetxe eta tabernek gogotsu ekin diote bigarren faseari

Jatetxeek zabaltzeko baimena dute eta tabernek barrua zabaltzeko ahal izan dute gehienezko bezero kopuru mugatuagaz

DURANGALDEA • JONE GUENETXEA

Terrazak zabalduta, ostalariek deseskalatzearen lehenengo urratsak eman zituzten. Hala ere, tabernari askok negozioa itxita mantentzea erabaki zuten. Bigarren fasearen hasieragaz, astelehenean geroago eta ostalari gehiagok zabaltzeko ahal izan dituzte barruan bezeroei jaten emateko. Hori bai,

pertsona kopuru mugatuagaz eta higiene neurri zorrotzekin. Aste hasieratik, tabernetan ere barruko espazioak zabaltzeko ahal izan dituzte. Ostalariek gogotsu ekin diote normaltasun berriaren hurrengo urratsari. Kezkaz eta ilusioz dihardute lanean.

Bestalde, fase honen beste berrikuntzetariko bat makrodendak zabaltzea izan da. Eskualdean ere, saltoki handiek ateak zabaltzeko ahal izan dituzte, eurek ere bezero kopuru mugatuagaz.

Azalera handiko dendek ateak zabaltzeko aukera izan dute, betiere bezero kopuru mugatuagaz

Ordutegirik barik

Bigarren faseak ekarri duen beste berrikuntzetariko bat pertsonen mugikortasuna mugatzen zuten ordutegien murrizketa izan da. Beraz, jarduera fisikoa eta kirola

edozein ordutan egiteko aukera dago orain. Neurri horrek 10.000 biztanletik gorako herrietan izan du eraginik gehien; eskualdean,

Durangon eta Zornotzan. Gainerakoan, aurrerantzean etorriko diren neurri gehiago itxaroten dabilta herritarrek. Euskal Herri-

ko lurraldeen arteko mugikortasunak mugatuta segitzen du, lan arrazoiengaitik edo adinekoak zaintzeko arrazoiengaitik ez bada.



Konfinamendua arintzeko neurriak indarrean sartu ahala, eskualdeko kaleek mugimendua berreskuratuko dute.



OIER

OARBEASKOA

Mikeldi taberna

“Apurka-apurka jendea tabernara etortzen hasi da; iruditzen zait denok barneratu dugula zelan jokatu behar dugun”

joan-etorria etengabea izan da lehenengo orduetan. Mikeldin ez dute terrazarik zabaltzeko aukerarik izan, eta gogotsu heldu diote tabernaren barrualdea zabaltzeko aukerari.

Zelan joan dira lehenengo orduak? Urduri samar hasi ginen lanean.

Lehenengo egunean kezka zen nagusi, baina kontzientzia moduko bat hartu dugu denok. Apurka-apurka jendea tabernara etortzen hasi da. Iruditzen zait denok barneratu dugula gutxi gorabehera zelan jokatu behar dugun.

Gogoa zenuten astelehenean lanera bueltatzeko?

“Hainbeste egunean etxean sartuta egon eta gero, gogo handia genuen lanari ekiteko”

Bai, gogo itzela. Hainbeste egunean etxean sartuta egon eta gero, gogo handia genuen berriro lanari ekiteko.

Zein neurri ari zarete hartzen?

Distantziak handitu ditugu mahaien artean. Barran ez dugu zerbitzatzen. Horrez gainera, bezeroen bat mahaitik altxatzen den aldiro guztia desinfektatzen dugu. Mahaiak garbitzen ditugu, baita aulkiak ere. Azken finean, higienerari lotutako neurriak arazotuta behar izan ditugu.

Bezeroen erantzuna zelakoa izaten ari da?

Iruditzen zait orokorrean ondo erantzuten ari direla. Denerik dago, baina gehienak arauak errespetatzen dabilta.

DURANGO • EKAITZ HERRERA

Astelehen goiza. Lehenengo ordua. Eta Mikeldi tabernako kideak jo eta su lanean. Kafe makinaren zarata, herritarren berbaroa, eta, batez ere, giro atsegina. Bezeroen

ai arizmendi
ikastola **PRO**

Arizmendi Ikastolaren Lanbide Heziketa



943 77 20 25 • www.arizmendipro.eus • arizmendi@arizmendi.eus

Zure Lanerako Bidea

AURRE MATRIKULAZIOA Ekainaren 1etik 19ra

- GIZARTE ETA KIROL ANIMAZIOAREN IRAKASKUNTZA
- OSASUN LARRIALDIK
- ERIZAINZAKO ZAINZA OSAGARRIAK
- MIKROINFORMATIKA



MATRIKULAZIOA Uztailaren 13tik 17ra

“Iruditzen zait denok barneratu dugula zein den bizi dugun egoera; bezeroen jokabidean ere ikusi dugu hori”



EIDER
QUINCOCES

Napozt

DURANGO • EKAITZ HERRERA

Kafe makinan lanean dabilela harrapatu dugu Eider Quincoces tabernaria. "Segundo bat, orain-txe noa zugana". Topera dabil-tza Durangoko Napozt tabernan. Seinale ona da hori. Herritarrak gogotsu joan dira tabernako zer-bitzuaz gozatzea deseskalatzearen bigarren fasea hasi berritan. Beharginek ere bikain erantzun diote eskariari. Kafe batzuk eta garagardo batzuk zerbitzatu eta gero, Eider Quincocesek tartetxo bat erreserbatu digu gure galderei erantzuteko.

Gaur (astelehena) bigarren faseko lehenengo eguna. Zer moduz joan dira lehenengo orduak?

Ahal den moduan heldu diogu bigarren faseari. Dena berria da. Terrazetan zelan zerbitzatu, barrualdean zelan jokatu... horrela gabilta. Eta egoera hau bezeroentzat ere berria da. Esan daiteke egokitzapen fase batean gaudela denok. Edozela ere, oso gogotsu gaude. Terraza zabaldu dugu. Barrualdea ere bai. Herritarren erantzuna oso ona izan da orain arte. Pozik gaude.

Zelan daude herritarrak? Igarri du-zu kezkarik eurengan?

Badago kezka hori, bai, baina esango nuke gauza biak nahasten direla, gogoa eta kezka. Hau da, bezeroek terrazara etortzeko gogoa dute, baina metro biko distantziak eta halakoez arduratuta daude. Edozela ere, iruditzen zait denok barneratu dugula oso ondo zein egoera bizi dugun. Bezeroen jokabidean ere ikusi dugu hori. Baimena eskatzen digute tabernan sartzeko. Berdin terrazan jesartzerakoan ere.

Pozik zaudete orain arteko harre-ragaz?

Bai, oso pozik. Erlazionatzea oso gogoko duen gizartea da gurea, eta tabernara etortzeko jendearen gogo hori igarri dugu. Ez dakigu zer etorriko den aurrerantzean, baina ondo gabilta egokitzapena egiten. Orokorrean, oso pozik gaude, bai jendearen harre-ragaz, bai euren jokabideagaz.

“Tabernetako eta kaleko bizimodua gure nortasunean dago; ez aldatzea itxaroten dut”



MILA
EIZMENDI

Mesoi Barria

DURANGO • EKAITZ HERRERA

Kalera begirako terrazan mahai bat edo beste. Barrualdean bezero batzuk, eta arauak agintzen duen moduan jesarrita. Bitartean, zer-bitzariak hara eta hona dabilta. Plater bete pintxo eskuan orain. Basobete garagardo ateratzen gero. Mila Eizmendi ere atzera eta aurrera dabil. Mesoi Barriak aste-lehenean zabaldu zituen ateak eta lehenengo orduak zelakoak izan diren kontatu digu Eizmendik.

Eta hainbeste egunen ondoren, lanera berriro.

Ez da erraza, baina apurka-apur-

ka egoera berrira ohitu behar dugu. Maskara erabiltzera ohitu behar dugu. Bezeroek jakin behar dute langileok maskara ipinita izan behar dugula. Berri-ro ikasten ari naizen sentipena dut.

Berriro ikasten ari zarela diozu.

Hauxe esan diot neure buruari: "Bizitza osoan lana besterik ez dut egin. Tabernako lana egiten baino ez dut jakin, eta orain hori ere ez dakit". Sentsazio hori dut. Ez dakizu ondo zabilta, herritarrek zelan erantzungo duten. Gero, metro biko distantzia mantentzearen kontua dago. Ematen du elkarregaz telefonoz berbetan amaituko dugula! Horrelako sentipenak ditut, baina oso gogotsu nago aurrera egiteko. Ez dago besterik.

Durangoko Alde Zaharreko ta-bernarien presidentea zara. Egin duzue egoeraren balantzerik?

Oso egoera txarra da. Urte hau berreskuratzea ezinezkoa izan-

“

Gauzak antolatze-ko eta elkarren artean batzeko premia dugu. Tabernariok badugu zerbait sortzeko asmoa”

go delakoan nago. Gauzak antolatze-ko eta elkarren artean batzeko premia dugu. Sinetsita nago elkarlanagaz beti lortzen direla gauza indartsuagoak. Baditugu proiektuak buruan. Badugu zerbait sortzeko asmoa, baina egoera zein den ikusita ez dakigu zehatz-mehatz zer eta nola antolatu daitekeen.

Beraz, elkarlana izango da zulotik irtetea ahalbidetuko diguna?

Ea denon artean indarra batzen dugun. Kaleko bizimodua egitea maite dugu eta hori ez aldatzea gura nuke. Gure ohituren parte da. Gure nortasuna da: taberna-zaleak gara. Ea ohitura hori ez den aurrerantzean aldatzen.

ALDEKOA-OTALORA
iturgintza

BEROKUNTZA – AIREA – GASA
INDUSTRI MANTENTZEA

info@aldekoaotalora.com

Zubiaurre, 8 IURRETA

946 202 768

Arzubia 10 B industrialdea, 13-14 pabiloiak ABADIÑO

944 071 791 - 692 859 779



Plaza
mugatuak

Udalekuak 2020

6 urtetik aurrera

Ordutegia: 9:30etatik 14:00etara
edo 16:00etara

Astelehenetik Ostiralera:
Ekainaren 22tik abuztuaren 31era arte,
astero edo egun solteak ere.

**Talde murriztuak, segurtasun
protokoloa betez.**

EKINTZAK


- Zaldia maneiitzea eta zaintzea
- Ekitazio ikastaro trinkoak
- Zaldi-jokoak
- Aire zabaleko jolasjarduerak
- Txangoak...

Zelai Alai
HIPIKA ESKOLA

Zelai Alai Hipika Eskola Iurreta Gaztafata auzoa z/g 48215 Iurreta - Tel: 691 746 611



www.hipicazelaialai.com



Mikel Bizkarra Euskadi Fundazioko maillotagaz. @PHOTOGOMEZSPORT

“Txikitako ametsa bete dut eta desiratzen nago Euskaltelen maillotagaz errepidera irteteko”

Mikel Bizkarra Euskaltel-Euskadi taldean dabil aurten; taldeko maillot berria Euskal Herriko Itzulian estreinatzeakoak ziren, baina lasterketa bertan behera utzi behar izan zuten

TXIRRINDULARITZA • M. ZUAZUBISKAR
Mikel Bizkarra mañariarra desiratzeko dago maillota jantzi, dortsala ipini eta onenekin lehiazteko. Hala ere, Euskaltel-Euskadiko txirrindulari

lariak badaki "oraindino apurtxo bat" itxaron beharko dutela.

UCIk (Nazioarteko Txirrindulari Elkarteak) txirrindularitzako egutegi

berrantolatuaren berri eman du. Zuk badakizu lasterketetara noiz itzuliko zaren?

Uztailaren 24an lehiatzen haseta da taldearen asmoa, Portugalen, hi-

Mikel Bizkarra
Etxegibel
Euskaltel-Euskadiko
txirrindularia
Mañaria | 1989

ru eguneko itzuli batean. Baina txirrindulari bakoitzaren egutegiari dagokionez, oraindino ez daukagu ezer zehaztuta. Hala ere, taldearen egutegia ikusita, Portugalekoaren ondoren lasterketa nahikotxo izango ditugu, egiten badira, jakina.

“**Arrabolan entrenatuta bakarrik sasoia galduko nuela eta ez nintzela ondo egongo uste nuen**”

Momentu honetan, zelan zaude fisikoki?

Egia esanda, nahiko ondo. Arrabolan entrenatuta bakarrik sasoia galduko nuela eta ez nintzela ondo egongo uste nuen. Baina dagoeneko banabil errepidean, eta sentazio onak ditu.

Zelan eraman duzue konfinamendua eta egunero arrabolan entrenatzea?

Lehenengo egunak izan ziren gatxenak, jakinda ezin duzula kalera irten, ezin duzula ezer egin eta etxean gelditu behar duzula. Hala ere, lehenengo momentutik errutina bati jarraitzen ahalegindu nintzen, eta arrabolan entrenatzen nintzen, goizean eta arratsaldean. Goizean intentsitate handiagoko saioak egiten nituen, eta arratsaldean, ostera, apur bat lasaiago hartzen nituen entrenamenduak. Errutina horregaz eta arrabolarako dauden aplikazioekin, azkenean, nahiko ondo eraman dut konfinamendua.

Konfinamendu sasoian jakin duzue zuen taldeak ez duela gonbidapenik jaso Espainiako Vueltarako. Itxarondako berria izan da?

Bagenekien gonbidapena jasotzea gax izango zela, denboraldi hasieratik. Talde bik baino ez dute jasotzen, eta hor egotea ez zen

batere erraza, jakinda mailaz igo berri den taldea dela gurea. Vueltak azken orduko aldaketak izan ditu eta baguenen esperantza txiki bat, Holandatik barik Euskal Herriatik irtengo duelako. Gainera, COVID-19aren kontuagaz gonbidapen gehiago emango zituztelakoan geunden. Baina ez da horrela izan. Guretzat pena da, etapa asko etxean izango dira eta. Gure aldetik, ondo lan egiten jarraitu eta errepidean erakutsiko dugu etorkizunean toki bat merezi dugula.

Denboraldia indartsu hasi zenuen, onenekin lehiatzen. Geldialdi honen ondoren, zeintzuk dira zure helburuak?

Ez daukagu helburu jakinik. Zuzendariak esan digute lasterketa dezente izango ditugula abuztuan, eta hor indartsu egon beharko dugula. Orduan, ahaleginduko gara denboraldia hasten den momentuan indartsu egoten eta dena ematen. Askota jota, lasterketak hiru hilaren barruan izango ditugu eta aukerak aprobetxatzen ahalegindu beharko dugu. Lasterketa guztiak izango ditugu helburu.

“**Guretzat pena da Espainiako Vueltan ez egotea, azkenean etxean etapa asko izango dira eta**”

Euskadi Fundaziora bueltatu zara, profesionaletan debutatzeko aukera eman zizun taldera.

Eurek eman zidaten profesionale-tara igarotzeko aukera, eta pozgarria da urte dezentaren ondoren bertara itzultzea; gainera, kolore laranja eta Euskaltelen laguntzagaz. Maillot laranja hori eramatea txikitako ametsa betetzea da. Txikitako Euskaltel animatza-joaten ginen lasterketa guztietara, marea laranjako kide nintzen. Orain, txikitako ametsa bete dut eta desiratzen nago Euskaltelen maillotagaz errepidera irteteko. Aurten ez bada ere, seguru nago datorren urtean etxeko lasterketetan zaleekin disfrutatuko izango dugula eta dena oso hunkigarria izango dela.

LANBIDE HEZIKETA

lea artibai
ikastetxea

94 616 90 02
mbengoa@learik.eus

WWW.LEARTIK.EUS

Aurrematrikula
EKAINAREN 1etik 19ra

Matrikula
UZTAILAREN 13tik 17ra



Ostalaritza gida

anboto

 **Iurreta**



GAUARGI
Dantzari, 4 behea - IURRETA
Gosari bereziak: pintxoak, tostadak eta etxeko bizkotxo eta "Brownie"-ak.
Astelehenetik ostiralera: Menu erdiak 6€-tan. Egutero zabalik. Domeketan eta jaiegunetan rabak.

 **Durango**



OLAJAUREGI JATETXEA
Kurutzia Kalea, 52 - DURANGO
Tel.: 946 200 864
www.olajauregi-jatetxea.com
Egutero menuak, bereziak, taldeentzakoak eta ospakizunak.
Egutero zabalik.

 **Durango**



MIKELDI TABERNA
Kalebarria, 7 - DURANGO
Tel.: 944 073 988
Alde zaharrea kokatuta.
Pintxo gozoak eta giro alaiak.

 **Abadiño**



ABARKETERUENA
Iturritxo, 6 - Txanporta plaza, ABADIÑO
Tel.: 944 657 790
Egutero menuak eta asteburuetakoko menu bereziak. Goizetik pintxoak.
Giro oso ona.

 **Durango**



TXORIA NUEN MAITE
San Rokebidea 17
Tel.: 946 218 339
Afariak egutero (Igandeetan bazkariak ere).
Koktelak, EHko artisau garagardoak, take away, terraza,... Afariak erreserbatzeko ordutegia: 15:00etatik 19:00etara.



**Profesionalik
onenak zure
zerbitzura!**



“Oso pozik gaude itxialdian egin ditugun ekimeneke izan duten harrera eta hedapenagaz”

Hasieran, maiatzaren 14an zabaltzekoak ziren arren, Durangoko Museoak ekainaren 2an zabalduko ditu ateak



Garazi Arrizabalaga Cabrerizo
Durangoko Arte eta Historia Museoko zuzendaria
Berriz | 1984

DURANGO • ARITZ MALDONADO

Koronabirusaren eraginez hile bian itxita egon eta gero, Durangoko Arte eta Historia Museoak ateak zabalduko ditu berriro, martitzenean. Eraikina itxita egon den arren, bertako lantaldea ez da geldirik egon eta kulturzaleekin kontaktua

mantendu dute sare sozialen bitartez. Hasieran, lehenengo faseagaz batera zabaltzekoak ziren arren, ekainaren 2an zabalduko dituzte ateak, neurri bereziak hartuta.

Zelako neurriak hartu dituzue ateak zabaltzeko?

Konfinamendua arintzeko faseen arabera, maiatzaren 14an zabaldu behar genuen; hala ere, martitzenean zabalduko dugu, ekainaren 2an. Azken aste hauetan, egin beharreko aldaketak prestatzen aritu gara. Aldaketa handiak dira. Esate baterako, ezingo da ekintza-

rik egin. Hemendik eta irailera arte, ezingo da umeeekin taillerrik egin, adibidez. Eta ezingo da paperezko euskarrian ezer banatu. Bestalde, ate bakarria egongo da museora sartzeko, eta larrialdietako atetik irten beharko da. Horrez gainera, igogailua igotzeko bakarrik erabiliko da. Mugikortasun urriko pertsonen kasuan salbuespena egingo da, baina beti ere museo-

“**Itxialdiaren ondoren, Fernando Mardonesen ‘Desbideratzeak’ erakusketa inauguratuko da, ekainaren 12an**”

ko harreran abisua eman beharko dute aurretiaz.

Fernando Mardonesen ‘Desbideratzeak’ erakusketa inauguratzeaz zegoela itxi behar izan zenuten museoa.

Inauguratu behar zen astean bertan itxi behar izan genuen, bai, dena muntatuta zegoela. Ekainaren 12an inauguratuko da, parkean. Hamar laguneko taldetan egin daiteke bisita erakusketaren txanda bakoitzean.

Itxialdian lanean jarraitu duzue.

Bai. Aste bakoitzean, artista baten obrari buruzko bideo bat egin dugu; baita historiari buruzko beste bat ere. Esaterako, Jose Luis Zumetarena egin genuen, hil zen sasoiaren bueltan hain zuzen ere. Andres Nageli eta Mari Puri Herrerori buruzkoak ere egin ditugu. Oso pozik gaude, bideoek hedapen handia izan dute eta. Horrez gainera, quiz lehiaketa moduko batzuk ere egin ditugu sare sozialetan, eta jende askok parte hartu du.

CERAMICAS
MACOBER

ZERAMIKA ETA GRESA
DEKORAZIOA ETA APAINKETA
ERAIKUNTZAKO MATERIALA

1300 m² BILTEGI - 800 m² ERAKUSKETA

Eitua indust., 65 BERRIZ - Tel.: 946 827 890 www.macober.com

uxarte
SAGARDAOGINTZA

Montorra, 6 ZORNOTZA - Tel.: 946 308 815
www.uxarte.com

ZABALIK
OSTIRALETAN ETA
ASTEBURUETAN

ASTEAN ZEHAR
ENKARGUZ
Gutxienez 15
laguneko taldeentzako

Botikak

BARIKUA, 29 · 09:00-09:00	09:00-22:00
BALENCIAGA Ezkurdi plaza 8 - DURANGO	SARASKETA, DIEGO Luis Urrangoetxea 5 - ZORNOTZA
MELERO, ROSA MARI San Pedro 31 - ZORNOTZA	ASTELEHENA, 1 · 09:00-09:00
09:00-22:00	SARRIA Sasikoa 17, DURANGO
SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO	SARASKETA, DIEGO Luis Urrangoetxea 5 - ZORNOTZA
IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - ZORNOTZA	09:00-22:00
SARASKETA, DIEGO Luis Urrangoetxea 5 - ZORNOTZA	SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO
ZAPATUA, 30 · 09:00-09:00	IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - ZORNOTZA
GAZTELUMENDI J.A. Abasolo 2 - DURANGO	MARTITZENA, 2 · 09:00-09:00
MELERO, ROSA MARI San Pedro 31 - ZORNOTZA	UNAMUNZAGA Murretatorre 2C - DURANGO
09:00-13:30	SARASKETA, DIEGO Luis Urrangoetxea 5 - ZORNOTZA
BALENCIAGA Ezkurdi plaza 8 - DURANGO	09:00-22:00
DE DIEGO Intxaurren 22. - DURANGO	SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO
NAVARRO Artekalea 6 - DURANGO	IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - ZORNOTZA
CAMPILLO Montevideo etorb. 24 - DURANGO	EGUAZTENA, 3 09:00-09:00
BAZAN DIAZ Urbarri 5 - DURANGO	CAMPILLO Montevideo etorb. 24 - DURANGO
LARRAÑAGA-BALENTZIAGA Berrio-Otxoa 6 - ELORRIO	SARASKETA, DIEGO Luis Urrangoetxea 5 - ZORNOTZA
EGUREN, ISABEL Trañabarren 15. - ABADIÑO	09:00-22:00
IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - ZORNOTZA	SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO
GUTIERREZ, IBAN Txiki iOtaegi 3 - ZORNOTZA	IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - ZORNOTZA
09:00-14:00	EGUENA, 4 · 09:00-09:00
IRIGOIEN Bixente Kapanaga 3 - IURRETA	NAVARRO Artekalea 6 - DURANGO
09:00-22:00	SARASKETA, DIEGO Luis Urrangoetxea 5 - ZORNOTZA
SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO	09:00-22:00
SARASKETA, DIEGO Luis Urrangoetxea 5 - ZORNOTZA	SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO
DOMEKA, 31 · 09:00-09:00	IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - ZORNOTZA
NAVARRO Artekalea 6 - DURANGO	
MELERO, ROSA MARI San Pedro 31 - ZORNOTZA	

Zorion Agurrak



GOZATU
GOZOTEGI-OKINDEGIA

Ermodo, 11 DURANGO
Tel.: 946 201 663
gozatudurango@gmail.com
facebook: Gozatu Gozotegia



Abadiñoko **Libe** Etxegaraik 5 urtetxo egin ditu maiatzaren 25ean. Mosu handi handi bat familia guztiaren partez! Asko maite zaitugu!



Zorionak, **Joanes** eta **aittitte!** Azken asteburuan eta datorren honetan zuen urtegunak ospatuko doguz. Joanesek 7 urte eta aittittek pillo handi bat. Mosu eta besarkada handiek etxeko danon partez. Disfrutatu egunekaz eta ondo pasau!

Eskelak



Kepa Arroitauregi Egaña

Plazerra izan da zu ezagutzea, elkarrekin gure seme-alabak hazten ikustea. Hutsune haundia da zuk utzitakoa, baina zure irribarrea gurekin geratzen da. Agur eta ohore, gaurkoan txapela zuretzat. Euskal lurrak besarkatu zaitzala, Kepa. TXOTX!

HOGEITAZORTZI TALDEA



28



Kepa Arroitauregi Egaña

Beti izan zara aitzindaria, beti lehenengo lerroan lanean, beti zure lagunen lagun. Zure indar, jakituria eta maitasunagaz eraiki dozuna betiko geldituko da gure bihotzean. Maisu bat zara eta izango zara!

Zure kuadrilla



Kepa Arroitauregi Egaña

Goiz joan zara gure artetik gelditu egin da denbora halan be zure zati bat geugaz eroango dogu gerora haizeagaz bat Laixiarreko zelai ta maldetan gora nahiz eta zure falta sarritan etorriko dan gogora zuk itxi dozun lur emankorra gero be loratuko da



San Marko kofradia eta Iurretako kofradien batzordea.



Kepa Arroitauregi Egaña

Inoiz ez dugu ahaztuko Kepa egin ta eman duzuna eskerrik asko, bihotz bihotzez adiorik ez, laguna



Anbotoko lantaldea



www.plazanbazan.eus Egilea: Garbine Ubeda (Aiorri)

ESaerak

Eman esaldi bakoitzari dagokion jarraipena, euskal esaera zahar bana osa dezaten.




Kaiola erosten duenak...

- ...hegaztiak nahigabetzen ditu
- ...dirua du barra-barra
- ...txoria gogoan
- ...kantuz gozatu nahi
- ...katua lagun



Gogozko tokian...

- ...azterketarik ez
- ...aldaparik ez
- ...maitasuna da nagusi
- ...etsaiak lagun





Hamarrekoa

Aurki itzazu bi irudien artean dauden 10 aldeak.



SUDOKUA

Osa ezazu sudokua, BI AUTO hitzak osatzen dituzten hizkiak erabiliz (B, I, A, U, T eta O). Gogoratu, letra bakoitzak behin agertu behar duela zutabe, lerro eta area bakoitzeko.



	I	T	O	B	A
			I		
I		O			B
B			T		O
		I	U		
	O	U	B	A	

Animatu gure Haurreskoletako partaide izaten HAURRESKOLETAN HAURREN ONGIZATEA HELBURU



TRAÑA-MATIENA

ABADIÑOKO HAURRESKOLA
Trañaetxoste, 10 ABADIÑO
Tel.: 946 202 166
tranamatiena.abadino@haurreskolak.eus



ZELAIETA

ABADIÑOKO HAURRESKOLA
San Trokaz enparantza, 7 ABADIÑO
Tel.: 946 200 672
zelaieta.abadino@haurreskolak.eus



ATXONDOKO HAURRESKOLA
Foruen plaza, 7 ATXONDO
Tel.: 946 859 002
atxondo.atxondo@haurreskolak.eus



EGUZKILORE

BERRIZKO HAURRESKOLA
Margarita Maturana, 4 BERRIZ
Tel.: 946 826 339
eguzkilore.berriz@haurreskolak.eus



JULENE AZPEITIA

DURANGOKO HAURRESKOLA
San Roke, 4 - behea DURANGO
Tel.: 946 203 516
julene.durango@haurreskolak.eus



ELORRIKO HAURRESKOLA
Goieta, 62 ELORRIO
Tel.: 946 584 907
elorrio.elorrio@haurreskolak.eus



ETORKIZUNA

IURRETAKO HAURRESKOLA
Olaburu, 5 IURRETA
Tel.: 946 200 937
iurreta.iurreta@haurreskolak.eus



ZORNOTZAKO HAURRESKOLA
Larrea auzoa, z/g AMOREBIETA-ETXANO
Tel.: 946 730 346
zornotza.amorebieta@haurreskolak.eus



MAÑARIKO HAURRESKOLA
Herriko Plaza, 2 MAÑARIA
Tel.: 946 218 308
manaria.manaria@haurreskolak.eus



ZALDIBARKO HAURRESKOLA
Autonomia kalea, ZALDIBAR
Tel.: 946 824 497
zalduzubieta.zaldibar@haurreskolak.eus

COVID-19a dela eta, haurreskolara matrikulazioa egitera etorri aurretik telefonoz hitzordua hartzea eskertzen dizuegu

MATRIKULAZIO DATAK
Maiatzaren 21etik ekainaren 8ra

• www.haurreskolak.eus •

“Inguruan estatu mugakide asko dituen arren, egoera dezente hobea da Austrian”

Euken Ercilla elorriarra karrera amaierako proiektua egiten dabil Austriako enpresa batez. Innsbruck hirian bizi da, Tirol eskualdeko hiriburuan. Euskal Herriko egoeraren aldean, koronabirusak modu leunagoan eragin die austriarrei

IZARO GALLASTEGI



Euken Ercilla Martinez
Austrian dabil ikasketak amaitzen
Elorrio | 1998

AUSTRIA • EKAITZ HERRERA

Euken Ercilla elorriarra diseinu industrialeko ingeniari ikasketak egiten dabil Mondragon Unibertsitatean. LED argiteriaren inguruko tesia amaitzen dabil, Austriako enpresa batez. Osasun krisialdiak harrapatu du.

Badirudi Euskal Herriaren aldean koronabirusaren krisialdia eraman-garriagoa dela Austrian.

Azken hilean nahiko egoera normala bizitzen ari gara. Neurri asko hartzen ari dira, leku itxietan batez ere. Kaleetan, nahiko normala da egoera. Apirilaren hasieratik izan dugu kalera kirola egitera irteteko aukera. Dendetara edo toki itxiren

batera bazoaz, bertakoek ematen dizute maskara. Lantokietan, supermerkatuetan edo garraio publikoetan derrigorrezkoa da maskara erabiltzea.

Austria osoan baieztatu diren positiboak 17.000 bat dira. Hildakoak, 635 bat. Guk hemen oso bestelako zenbakiak ditugu.

Bai, egoera dezente hobea da hemen, kontuan hartuta Austria nahiko leku arriskutsuan dagoela. Hau da, estatu mugakide asko ditu. Ni bizi naizen eskualdeak, esaterako, Tirolek, estatu asko ditu inguruan: Suitza, Luxenburgo, Alemania eta baita Italiako iparraldea ere. Italia iparraldeko eta Espainiar Estatuko egoeraren albisteak

heltzen hasi zirenean, berehala zarratu zituzten mugak. Italiako muga izan zen zarratzen lehenengoa. Prebentzio neurriak oso goiz hartu zituzten. Oso azkarra izan zen dena. Gainera, ikusirik Tirol eskualdeak zuela arriskurik gehien, konfinamendu neurriak lehenago hartu ziren hemen.

Eta testuinguru horretan, gazte elorriar bat ikasketak amaitzen Innsbruck hirian. Zer moduzko esperientzia izaten ari da?

Elorriotik irten eta hiri handi batean bizitzen ipintzeko beldur hori nuen hasieran. Ez naiz hiri handi batean sekula bizi izan eta ez dut usate ondo moldatuko nintzatekeenik. Baina Innsbruck herri handi baten

modukoa da. Jendeak elkar ezagutzen du, giro ona dago. Daukan beste alde interesgarri bat da kanpotar eta ikasle asko dituela. Unibertsitate sendoa du eta jende asko dabil ikasketak hemen egiten. Europako beste hainbat puntutan beharbada bizitasun falta egongo da kaleetan, baina hau oso hiri bizia da.

Erabateko Erasmus giroan bizi zara orduan.

Beste ikasle batzuekin partekatzen dut etxea. Bost gara, baina zoramezko Erasmus giroan barik, lan giroan bizi gara etxean. Haiek ere masterra egiten dabilta. Pisuki-deak italiarrak dira.

“**Euskal Herrian kirola sustatzeko eta kiroldegien errentagarritasuna hobetzeko proiektuan laguntzen dut**”

Bestalde, kirola sustatzeko proiektu batean ere sartuta zaude.

Bai. Proiektuak Wellk du izena. Beste euskaldun bat, Aritz Guinea, laguna dut eta Euskal Herrian kirola sustatzeko eta kiroldegien errentagarritasuna hobetzeko proiektua du esku artean. Koronabirusaren aurretik, udalekin hartu-emanen ipini ginen, baina gero dena eten zen. Bitartean, denbora aprobetxatu dugu. Kirol saioak, entrenamendu pertsonalizatuak eta kirolariei egindako elkarrizketak eskaintzen ditugu Interneten eta Instagramen. Uneotan erronka solidario bat dugu. Parte-hartzaileak dohaintza bat egin dezake minbiziaren aurkako ikerketarako. Minbiziaren aurkako Espainiako elkarteagaz lankidetzatza dugu.

Lau hortza

Amaia Ugalde Begoña
Kazetaria



Diskurtso hutsa

Apur bat higuinduta nago gizarteari animoak emateko sortu dituzten iragarki pandemikoekin:

Aupa denda txikiak! Gora osasungintzako langileak! Zaindu familia! Koronabirusari esker begi-bistan geratu da zer den benetan garrantzitsua, baina aldarri hauek iragarki bihurtzean zentzuz husten dira.

Zeren, aizue:

1. (Aupa denda txikiak!) Garapena porlanez eraikitzen dela sinestarazi ziguten, gure ekonomiarentzako albisterik onena enpresa handien irabaziak zirela. Progresoaz gutxi ulertzen zuten lau katu ziren herrian merkataritza-gune handien kontra manifestatu zirenak, etxebizitza gehiago ez eraikitzea eskatzen zutenak, berdeguneak behar zirela aldarrikatzen zutenak. Eta gero, Duran gon, paseorako lekurik ez.

2. (Gora osasungintzako langileak!) “Joe, ze txarto Estatu Batuetan! Han ez daukate osasun sistema eta gizarte-zerbitzu publikorik...” Bada, hemen ez ahaztu murrizketen sasoian gogor kolpatu zirela arlo hauek. Osasungintzan eta gizarte zerbitzuetan prekaritatea existitu egiten da tamalez; galdetu, bestela, adinekoen egoitzetako beharginei.

3. (Zaindu familia!) Maite ditugunak babesteko bisitarik egin ezinik egon gara. Eta etxetik kanpoko zortzi orduko lana eta eskola kendu dizkigutenean ikusi dugu mundua ez dagoela prest zaintza eta lan produktiboa uztartzeko.

Etorriko dira hauteskundeak, eta entzungo ditugu berriz politikariak herritarren alde besteek baino gauza gehiago egingo dutela esaten. Kosta egingo zait siniseta, lehentasunak guztiz irauli ezean egoera gutxi aldatuko dela ematen baitu.

Hain garrantzitsutzat jo ditugun gaiak ez daitezela berriro bazterreko bihurtu.

maristak
Ikastetxea - Durango
etorkizun oso bat

www.maristak.com

Administrazioa Finantzak | Elektronika Robotika | Mekanizatua Diseinua | Informatika Zibersegurtasuna

946810058
www.maristak.com

Baixilergoa, Goi-Mailako Heziketa-Zikloak, Erdi-Mailako Heziketa-Zikloak, Oinarrizko Lanbide Heziketa, Zikloetarako Sarbide Proba, Enplegurako Formakuntza

Euskadi | HETEL | bai

Matrikulak
Baixilergoa
Ekainak 22tik
Uztailak 6ra

**Ezagutu nahi bagaituzu,
deitu eta zita bat eskatu!**

Aurrematrikulak
Lanbide Heziketa
Ekainak 1etik 19ra
hitzordua eskatuta
946810058